HAIZEA AGUIRRE NAIDER TALDEAN SARTU DA BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN 2022KO TALENTUA ERAKARTZEKO PROGRAMARI ESKER

Posted on 05/07/2022 by Naider

Category: Albistea

Nafarroako Unibertsitateko Arkitektura eta Hiri Plangintzako Masterra eta Euskal Herriko Unibertsitateko Ekonomia Zirkularreko Masterra. **Haizea Aguirre aditua da hiri-biziberritzean, hirigintza birsortzailean eta hiri-inguruneen eta industria-inguruneen naturalizazioan**. Bere ibilbide profesionalaren zati handi bat Montreal eta Vancouver artean garatu du, eta Vancouverreko Udaleko Plangintza, Jasangarritasun eta Paisaia Saileko Hirigile gisa parte hartu du, hiri-jasangarritasuneko prozesuen munduko liderra baita. Kanadan aditu gisa urteak eman ondoren, Naider Taldean sartu zen, **Bizkaiko Foru Aldundia**ren **Talentua Erakartzeko 2022 Programa**ren laguntza publikoari esker.

Haizea Aguirrek 15 urte baino gehiagoko esperientzia du, garapen jasangarriko, eraldaketa energetikoko eta hiri-ekologiako (eraikinen monitorizazioa eta ingurumen-ziurtagiriak) jarduera estrategikoei forma emanez. Kanadaz gain, nazioartean duen esperientzia zabala Espainiara, Mexikora, Kolonbiara edo Frantziara hedatzen da. Bere lan nagusiak eraikuntzan eta espazio publikoan jasangarritasun-irizpideak aplikatzean oinarritzen dira, energiaren, materialen, eraikinen ingurumen-ziurtapenaren (monitorizazioa, LEED, BREEAM) eta eraikuntza-sistema berrien kudeaketan oinarrituta.